

# ELIKAGAIEN INDUSTRIARAKO EKONOMIA ZIRKULARRARI BURUZKO WEBINARRA, GIPUZKOAKO GARAPEN AGENTZIEKIN

*Posted on 12/04/2024 by Naider*

**Category:** [Albistea](#)

**Tags:** [Araudia eta legeak](#), [Competitividad empresarial](#), [Ekonomia zirkular baterantz](#), [Enpresa lehiakortasuna](#), [Normativa y legislación](#)

Joan den apirilaren 11n, Oarsoaldea, Debegesa eta Tolosaldea Garatzen-ek antolatuta eta Ivan de Torres eta Aitor Mingo NAIDEReko trantsizio zirkular eta ekologikoko adituek gidatuta, "Ekonomia zirkular baterantz elikagaien industrian: hondakinen legea aldaketarako motor gisa" online jardunaldia egin zen.

Jardunaldian, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 7/2022 Legearen kontzeptuak jorratu ziren, ekoizlearen erantzukizun zabalduak eta plastikozko ontziak murrizteak elikagaien industrian duten eragina aztertu zen, eta prebentzio-programak sustatu ziren.

Jardunaldia bideoan dago eskuragarri bertaratu ezin izan ziren guztientzat:

<https://www.youtube.com/watch?v=f1r4bJQoCfg>

---

Irudi nagusia: Markus Spiske, Unsplash-en

